

ASTIGARRAGA

ACCIPITE

Urtaz ez gera gaizk; babarruna urri sar-
nar; arto belar eder eta ugari; sagarra
eder eta ez gutxi, kizka dantza dantzugu
non-nai, uri guzian sagardo usai gozoa as-
nasten da. ¡Urtzi dan oparoa!

AITA BAÑO OBIA IZANGO AL DEK

Txalakako Julien eta Joxpantonik, Jo-
seba Augustin mutiko ederra eman cie
Aberriari eta Diobatzari, Aldabalde Jose
Austin eta Goikoetxea Joxepa, besoeta-
koak; bejondaizutela.

ANDOAIN'GO EUSKEL-EGUNAK

Orixe eta Azkue jaunen itzaldietara al-
banedi juango naiz. Igandez ontzerriratze-
ko zoria dezutenok ibilli. Ongi orain bildu
al izan dedana:

Agustin Aldabalde, 1 laurleko; Joaquin
Ayerregarai, 1; Jose M. Arruabarrena, 1;
Alberto Guruzega, 1; Martin Egiazabal, 1;
Tomas Almandoz, 2; Bonifacio Almandoz,
2; Antonio Donosti, 1; Faustina Arza-
llun, 1; Sabina Goñi, 1. Guztitara, 12.

Amabi laurleko guztira, gutxi baño gogo-
onez, egunekotik bizi diranena. Abera-
tsei ez diet eskatu inere zakel txirotik be-
rriz Argi Donea igesi da, non jausiko ote
da?

TXADON ZAYA.